

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



KONTZERTUAK

Hiru sarrera bikoitz zozketan, etziko kontzerturako

Hiru talderen kontzertua izango da larunbatean, Biteriko areto nagusian, gaueko 21:00etan. Disko berria aurkeztuko dute Bloody Brotherhood eta Melt-down talde hermaniarrek, eta Liher taldea gonbidatu dute, haiekin. Kontzerturako sarrerak salgai daude, 7,5 euroan; baina hiru sarrera bikoitz zozketatuko dituzte Doberak eta Kronikak, apuntatzen diren Kronikalarien artean. Horretarako: Kronikaren bulegotik pasa (Larramendi 11), 943 33 08 99 telefonora deitu, edo idatzi kronika@kronika.eus helbide elektronikora. ||

EREÑOTZU

Indusketa lanak etzi, Putzuzarren

Ikerketa arkeologiko bat egingo du Aranzadik larunbat honetan, Ereñotzuko Putzuzarren. Bertan dagoen ustezko trikuharri bat industuko dute, eta gerturazten direnek, aukera izango dute bertatik bertara ikusteko. Goizeko 09:00etan hasiko dira. ||

TXANTXANGORRI

San Silbestrea etzi, Arkaleko tiralekuan

Larunbatean egingo du Txantxangorri elkarteak, San Silbestre Compak Sporting tiro txapelketa, elkarteko bazkideen artean. Oiartzungo Arkaleko tiro eremuan izango da, goizean, eta bertan eman beharko da izena, 09:00etatik 10:00etara. ||

ERREGEEN KABALGATA

Pajeen trajeak jasotzeko, gaur

Errege Magoen kabalgatan paje bezala aterako direnek, gaur edo urtarrilaren 2an jaso behar dute trajea, 17:00etatik 18:00etara, Biterin. ||

ZUMITZA TTT

Lizentziak, gaur

Gaur jarri du zita Zumitza TTT taldeak, txirindularitza lizentziak egiteko. Kide kafetegian egongo dira, 19:30etatik 20:30etara. ||

HERNANI ERROTZEN

‘Memoria lekuak’ dokumentalaz, gaur

Hernani Errotzen eta Nabarralde ekoizleek, dokumentala aurkeztu eta gaiari buruzko hitzaldia eskainiko dute, 19:30etan Biterin. ‘Ezagutu Hernani’ko partehartzaileek, saria jaso dezakete bertan.

DOKUMENTAL berri batekin datoz Hernani Errotzen elkarte eta Nabarralde Fundazioa. Aurtuneko izeneko lana, elkarlanean, eta gaur aurkeztuko dute, hermaniarren aurrean. Iluntzeko 19:30etan izango da, Biterin.

Dokumentalaren aurrerapena egingo dute bertan, eta gaiari buruzko hitzaldia ere

eskainiko dute: «oroimen edo memoria lekuak kontzeptuaren beraren esanahia hausnartu eta zabaldu nahi dugu».

Izan ere, diotenez, «gure iruditeri eta kulturari estuki lotutako kontzeptua izan arren, aski ezezaguna zaigu». Horregatik, gaia itzalpetik eta isiletik atera nahi dute, «berau kuestionatu, ezagutu eta geuretzako

ko nola erabili proposatu. Geure historiari ekarpena egiteko, geure memoriaren ondareari. Geure iruditeri propioa balore jarri, landu eta zabaltzeko saioa da hau», aurreratu dute.

‘Ezagutu Hernani’**n parte hartu zutenek, saria gaur** Biterin bertan, bestalde, saria jasotzeko aukera izango dute,

Ezagutu Hernani lehiaketan parte hartu zutenek. *Beloagako gaztelua, memoriaren behatokia* dokumentala jasoko dute opari, arratsaldeko 18:00etatik 20:30etara azalduta.

Zalantza dutenek edo bertaratu ezin dutenek, emaila bidali dezakete, helbide elektronikoko honetara: herriaerrotzen@gmail.com. ||

GABONAK

Jolas eta ekintza ugari, oporraldiaz gozatzeko

Gaur eta bihar egongo da ludoteka kiroldegian, 10:00etatik 13:00etara. Zirku tailerra eta eskalada egingo dute Gaztelekukoek, haurrentzako antzerkia Biterin, eta haurrentzako txokoak Iturritxon.

EZ dira gutxi Hernanin, Gabonetako oporraldiaz gozatzeko aukerak. Atzo zabaldu zuten ludoteka kiroldegian, eta gaur eta bihar ere egongo da, goizeko 10:00etatik 13:00etara. Bi pistatan jarri dute, eta kirolerako zein jolaserako aukera dago horietan: jokuak, eskalada, ohe elastikoak, *slackline*...

Ordu jakin batzuetan, gainera, ekintza gidatuak antolatu dituzte. Gaur, *indoor walking* saioa egingo dute 10:30etan, eta *zumba* 11:30etan. Eta bihar, 10:30etan egingo dute *zumba*, eta 11:30etan *spinning* saioa.

Iturritxo elkartearen ere izango da jolaserako aukera, gaur goizean. Haur txokoak egingo dituzte, 11:00etatik 13:00etara.

Zirku tailerra, eskalada eta ping-pong, Gaztelekuak Gaztelekuak ere antolatu ditu hiru saio, gaur, bihar eta etzi.

Zirku tailerra egingo dute gaurkoan, Biterin, 17:00etan hasita. Bihar, eskalada egingo dute Gaztelekuan bertan, 10:30etan. Eta larunbatean, ping-pong txapelketa jokatu dute, Gaztelekuan hori ere.

Bihar arratsaldean, berriz, haurrentzako antzerki saioa izango da Biterin: *Blowing* antzezlan dantzatua eskainiko du Bacum Múcab Dans talde kataluniarrak, 18:00etan hasita. Sarrerak salgai daude, Biterin bertan, 3 euroan.

Haur Parke Solidarioa, larunbatean kiroldegian

Jolaserako tartea izango da kiroldegiko frontoian, larunbatean ere. Izan ere, Haur Parke Solidarioa antolatu dute, goizez (10:00-13:30) zein arratsaldez (16:00-19:30). 3 euro izango dira sarrera, Lesboseko haur errefuxiatuei laguntzeko. ||



Bi gaztetxo jolasean atzo, kiroldegiko ludotekan.

Latxe

Bosgarren alea kalean!

latxe@kronika.eus
943 33 08 99

Urumeako ur-ttikitan barrena

BRINTZA
AHOLKULARITZA - CONSULTORIA

Lan-Aholkularitza
Fiskala
Aseguruak Inbertsioak
Zerbitzu Juridikoak

www.brintza.com

URBIETA KALEA 15, HERNANI
Tel: 943 33 12 67 Fax: 943 33 08 92

Tripontzi jatetxea

PINTXOAK
RAZIOAK
ENTSALADAK
PLATER KONBINATUAK
ARRAI FRESKOAK

ANDRE KALEA, 11 - HERNANI
943 555 724

taegi edarietxea

DEGUSTAZIO DENDA

Asteartetik igandera
MOKADUTXOA KOPAREKIN BATERA
Ostegunetan eta ostiraletan berezia
11:30 - 14:30 / 18:30etatik aurrera

Zatoz sulfitorik gabeko ardo naturala dastatzera!
Gipuzkoa osoan ez dago horrelakorik!

Andre kalea 33, Hernani
943 12 84 03 / 681 394 083

☎ TAXIAK: 943 550093 | UDALTAINGOA: 943 248900 | DYA: 943 464622 | AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korroa Goizueta-Hernani: 948 514037 | ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 | JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103
✚ / Egunez: A. Etxebarria Andre kalea, 48 (Hernani) 943 551793 / Gaeuz: Castilla Urbieta, 7 (Hernani) 943 552941

EGURALDIA
GAUR Erdi eta goi mailako lainoak agertuko dira tarteka, baina ostarre zabalak ere izango ditugu. Hego-mendebaldeko haizea ibiliko da, tarteka bizi. Iluntzean, behe-lainoak sartuko dira. **Min.5° / Max.16°**
BIHAR Giro tristeagoa izango dugu bihar. Zeru oso lainotuta egongo da, egun osoan zehar; eta tarteka, euri pixka bat ere egin dezake. Temperatura maximoak, behera: **Min.8° / Max.13°** (euskarime)

DOBERA

'Urte Berri On, amona!' gaur, urtea agurtzeko

Sandiusterrin jarriko dute, arratsaldeko 18:30etan, 'Zinea euskaraz!' egitasmoko urteko azkeneko saioa.

KOMEDIA beltzarekin bukatuko du urtea, Zinea euskaraz! egitasmoko, Dobera Euskara Elkartearen eskutik. Urte berri on, amona! pelikula jarriko dute gaur, Sandiusterrin, arratsaldeko 18:30etan hasita.

Telmo Esnalek zuzendutako filma da, eta 107 minutuko iraupena dauka. Zahar-zaroaren gaia lantzen du, ikuspuntu komiko batetik. Mari amonak (Montserrat Carulla) Maritxu alabaren (Kontxu Odriozola) arretoa bereganatzen duela eta, Maritxuren senarrak, Joxemarik (Pedro Otaegi), erabaki du amona zaharren egoitza batean sartzea. Baina Maritxu konturatu gabe egin beharko du hori, Kintxo suhiaren (Josean Bengoetxea) laguntzaz. Lan erraza dirudiena, ustekabeko ondorioak ekarriko dituen lehia bilakatuko da azkenean, amonaren izaera tarteko.

Sarreraren truke, borondatea eskatuko dute. ||

PAUSOKA ELKARTEA

Eskerrak, jaialdian parte hartu zutenei Pausoka elkartearen alde, emandaldi berezia egin zuten Biterin, abenduaren 14an. Eta elkartetik, eskerrak eman nahi izan dizkiete, emanaldiak eskaini zituzten guztiei, sarrerak saltzen lagundu zieten komertzioei, eta saioa ikustera gerturatu zirenei. ||

IRAGARKI MERKEAK

LOGIKALINE enpresak BOST TELEOPERADORA LANPOSTU bete behar ditu. Lana Hernanin egiteko da. Kontratuak: 6 hilabete, hasteko. Gaztelera eta frantsesa eskatzen dira. Lanaldi osoa. Bidali c.v. rrrh@logikaline.com edo deitu 943 31 86 06

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

PALA

Adurtzako finalean ezin, Balerdik eta Urdangarinek

23-30 galdu zuten astelehenean, etxeko bikotearen kontra. Asteburu honetan, hiru final jokatu dituzte Irazustabarrenak eta Huizik; horietako batean, Amaia Araiztegi izango dute aurrean.

ATSEDEN hartu baino, partidu gehiago ari dira jokatzen Hernaniko palistak, Gabonetako oporraldian. Lau torneotan ari dira, eta lauetan sailkatu da hernaniarren bat, finalera.

Astelehenean jokatu zuten Adurtzako Txapelketaren finala, Ekhiñe Balerdik eta Garazi Urdangarinek, semifinala 30-19 irabazi ondoren. Baina txapela janzteko lehian, etxeko taldea, Adurtzako bikotea, nagusitu zitzaizen (23-30). Indartsu hasi zuten finala hernaniarrek, eta bost tantoren aldea ere hartu zuten. 21garren tantora arte izan ziren aurretik, baina gero, Adurtzakoek pelota aldatu zuten, oso bote motzekoa aukeratu, eta horrek min egin zien hernaniarrei.

Irazustabarrena eta Huizi, hiru finaletan asteburuan Sasoi batean daudenak, Amaia Irazustabarrena eta Maider Huizi dira. Asteburu honetan daukate Kinieletako Torneoaren finala, Munduko Pilota Bartzarrak antolatuta, larunbat goizean Sopelan. Baina ez dute bakarra izango, beste bi jokatze saikatu baitira.

Larunbat arratsaldean, laruzko paletako Bizkaia Torneoak jokatu dute, eta aurrean izango dute Amaia Araiztegi, Maider Mendizabalekin. Ligaxkako hirugarren jardunaldian, hiru setetan irabazi zieten Irazustabarrenak eta Huizik (8-3, 8-4 eta 8-3), Martin eta Saezi, sekulako joku ona erakutsita. Eta igandean, Sakanako




Garazi Urdangarin eta Ekhiñe Balerdi, jasotako sariekkin.

Txapelketako finala jokatu dute Irazustabarrenak eta Huizik, elkarrekin hori ere. Semifinalean, 25-12 nagusitu zitzaiz-

kien hernaniarrek Aristorena eta Ruiz de Larramendiri, joan den igandean, Etxarri-Aranatzeko frontoian. ||



Eskelak


Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

✚ **IMANOL IZAGIRRE ARRUEBARRENA**
JAUNA
Herenegun hil zen, 55 urte zituela
- Goian Bego -

Anai-arrebak: Joxan eta Maite, Txaro eta Sebas; ilobak: Helene eta Isusko, Amaia eta Ramon, Nerea eta Borja, eta Andoni; osaba-izebak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.
Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela **GAUR, OSTEGUNA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.
Hernanin, 2018ko abenduaren 27an



✚ **ARANTXA BURUGAIN GOIKOETXEA**
ANDREA
(Jesus Mari Arrieten alarguna)
Atzo hil zen, 75 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta
- Goian Bego -


Seme-alabak: Izaskun eta Alfonso, Jasone eta Javier, Xabier eta Virginia, Nekane eta Iñigo; bilobak: Beñat, Iker, Ane, Arhane, Joanes, June; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak, gainerako ahaideak, eta Lizeth eta Gloria.
Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela **GAUR, OSTEGUNA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.
OHARRAK: Gorputza Hernaniko VASCONGADA EHORZKETA TANATORIOAN egongo da, gaur eguerdiko 12:00ak arte.
Hernanin, 2018ko abenduaren 27an



 **ARANTXA BURUGAIN GOIKOETXEA**
Besarkada bat familiari.
NEKANEREN KOADRILA

Hernanin, 2018ko abenduaren 27an

 **IMANOL IZAGIRRE ARRUEBARRENA**
- Goian Bego -
Zure bihotz onagatik, maitasunez.
LIZEAGA CLAVER FAMILIA

Hernanin, 2018ko abenduaren 27an

 **IMANOL IZAGIRRE ARRUEBARRENA**
- Goian Bego -
Urak dakarrena, urak daroa baina zuk emandakoa gurekin gelditzen da.
BUENOS AIRES-EKO KOADRILA

Hernanin, 2018ko abenduaren 27an

✚ **IMANOL IZAGIRRE ARRUEBARRENA**
- Goian Bego -
Betiko izango zaitugu gogoan.
ZURE LEHENGUSUAK: ARANTXA, IÑAKI ETA JON

Hernanin, 2018ko abenduaren 27an

 **IMANOL IZAGIRRE ARRUEBARRENA**
Betiko izango zaitugu gogoan.
MARIA JESUS, IZASKUN, AMAIA, ZUHAITZ, KIMETZ ETA LAIA

Hernanin, 2018ko abenduaren 27an